

EUSKARAZ EGIN ZAZU

Ei, zuk zergatik ez euskaraz
etengabe aritzen gara erdaraz
Ahobizi_egin zaitezke.

*Euskaraz egin zazu
etxean zein kalean.
Lehenengo hitza
euskaraz gure_artean.
Lotsarik gabe
gure harremanean...
Euskaraz egin zazu!*

Ez, ez da izan behar traba
aurreiritziak, alboratu, laga
a(ha)leginak merezi du.

*Euskaraz egin zazu
etxean zein kalean.
Lehenengo hitza
euskaraz gure_artean.
Lotsarik gabe
gure harremanean...
Euskaraz egin zazu!*

Bai, Getxo bete dezakegu
Ahobizi, Belarriprest, Irribizi
izan gaitezen eredu.

*Euskaraz egin zazu
etxean zein kalean.
Lehenengo hitza
euskaraz gure_artean.
Lotsarik gabe
gure harremanean...
Euskaraz egin zazu!*

Ez, ez dezagun gal hizkuntza
guk ez ditzagun asmatu_aitzakiarik
badaukagu zer/esanik.

*Izan ardura
euskara bizitzeko.
Hizkuntza ere badugu
guk gozatzeko,
elkarrekin egi bihurtu daiteke
euskaraz egin zazu!*

Noiz, iritsiko da eguna,
bazter guztietan entzungo duguna
ahorik aho euskara.

*Izan ardura
euskara bizitzeko.
Hizkuntza ere badugu
guk gozatzeko,
elkarrekin egi bihurtu daiteke
euskaraz egin zazu!*

Bai, irten gaitezen kalera
abenduak hiru jadanik hemen da,
mezua zabal dezagun.

*Izan ardura
euskara bizitzeko.
Hizkuntza ere badugu
guk gozatzeko,
elkarrekin egi bihurtu daiteke
euskaraz egin zazu!*



Aixerrota BHiko
1. Batxilergoko Musika ikasleak
Doinua: Amigos para siempre